



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

# **2017-2030 ALDIRAKO IM ETA SCPSA- REN PLAN ESTRATEGIKOA**

**2020AN EGINDAKO BERRIKUSTEA ETA  
EGUNERATZEA**

**2020ko azaroa**



## AURKIBIDEA

1. Aurkezpena.....	¡Error! Marcador no definido.
2. Sarrera .....	¡Error! Marcador no definido.
2.1. IMren eta SCPSAren jatorria eta bilakaera .....	5
2.2. Zerbitzuak emateko esparrua.....	6
2.3. Gobernu-organoak. ....	7
2.4. Interes-taldeak.....	8
2.5. IM-SCPSA, kopurutan . ....	10
3. Berrikusteko prozesua. ....	12
4. Misioa, ikuspegia eta balioak. ....	13
5. Ardatzen eta erronken gogoeta estrategikoa.....	14
5.1. Lehen ardatz estrategikoa. Erakunde-esparrua. ....	14
5.2. Bigarren ardatz estrategikoa. Herritarrekiko eta ingurunearekiko harremanak. ....	16
5.3. Hirugarren ardatz estrategikoa. Zerbitzu iraunkorrak herritarrentzat .....	18
5.3.1. Uraren Ziklo Integrala eta Ibai Parkea. ....	18
5.3.2. Hiri-hondakinak. ....	22
5.3.3. Hiri Garraioa eta Taxia. ....	25
5.3.4. Klima-aldaketa. ....	28
5.4. Laugarren ardatz estrategikoa. Bultzada teknologikoa herritarren alde. ....	29
5.5. Bosgarren ardatz estrategikoa. Pertsona antolatuak. ....	31
5.6. Seigarren ardatz estrategikoa. Baliabide ekonomikoak. ....	34
6. Plan Estrategikoaren hedatzea, jarraipena eta eguneratzeak.....	35
7. Plan Estrategikoaren zabalkundea: gardentasuna .....	36
8. Ondorioa.....	37
I. ERANSKINA. ERRONKA ESTRATEGIKOEN ZERRENDA. ....	38
II. ERANSKINA. PROIEKTUEN ETA HELBURUEN HEDATZEA.....	40
III. ERANSKINA. PROIEKTUEN ETA HELBURUEN JARRAIPENA 2020KO EKAINEAN. ....	64
IV. ERANSKINA. 2017-2030 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN (2020KO BERRIKUSTEA) ETA 2021EKO URTEKO KUDEAKETA-PLANAREN ARTEKO ERLAZIOA.....	82



## 1. Aurkezpena

2016ko urriaren 27an, Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2017 eta 2030 urteen arteko aldirako Plan Estrategikoa onartu zuen. Lan kolektiboa izan zen, parte hartzeko eran egina, eta epe luzerako ikuspegiarekin, proiektuetan eta epeetan zehazteari uko egiten ez ziona.

Une hartan, lan horren berri Batzar Nagusiko kide moduan edukitzeko aukera izan nuen, eta han ginenotatik gutxik izan zituzten egina zegoen lan handiaren gaineko zalantzak, bai zerbitzu publikoaren alde eta bai erakunderako bererako helburuak zehaztean ere.

Orain, erakundeko lehendakari naizenez daukadan arduratik, prozesua hurbilagotik ezagutu ahal izan dut, eta une hartan onartutako planaren ezaugarriak berretsi behar ditut eta bai bertan jasotzen ziren jarduketa-ildoetako askoren indarra edo iraunaldia ere. Eta ez hori bakarrik, baizik eta egiaztatu dut estrategia bat edukitzearen erabilgarritasun erantsia, azkar erantzuteko bidea ematen baitigu eta bai haiek finantzatzeko arrazoizko ideiak eta proiektuak aurkezteko ere, administrazio desberdinek eskatzen dizkigutenean, duela gutxi Europar Batasunaren NEXT GENERATION deialdian gertatu den moduan.

Bat-batean eta ezin susmatuzko eran iritsi zaigun ziurgabetasun sozial, ekonomiko eta sanitarioko garaiak ditugu hauek. Planetan eragiten ari garen klima-aldaketari eta bere ondorioei buruzko –jada hemen diren ondorioak– ohartarazpenak ere emendatu dira. Horregatik inoiz baino garrantzitsuagoa da gure erakundea dagoen tokia edo puntua eta epe luzerako geure buruari jarri behar dizkiogun erronkak objektiboki kokatzeko bidea emango diguten erreferentziak ezartzea.

Hori dela-eta, utziezina zen hemen aurkeztu den berrikuspen hau, hasieran onartu zen planean jada aurreikusita zegoena. Horrekin sendotu egiten da planaren baliozkotasuna eta hasierako helburua: lehentasunak finkatzea eta erakundeko pertsona guztiak elkartzea, erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak oinarri dituzten helburu partekatu batzuen inguruan.

Edukien eguneratzea oso zeharkakoa izan da, eta neurri handiagoan edo txikiagoan ukitzen ditu sei ardatz estrategikoak. Edonola ere, lehentasunezko izaten jarraitzen duten zenbait alderdi nabarmendu nahi ditut, eta Iruñerriko herritarren bizi-kalitatea hobetzean eta aurre egiten jarraitu behar dugun ingurumen-erronkekiko konpromisoan kokatzen direnak.

Karbonoari dagokionez gure erakundea 2030erako neutroa izatea lortzeko erronka, digitalizazioa sustatzea, bikaintasuna sustatzea uraren zikloan eta hondakinen tratamenduari behin betiko bultzada ematea ekonomia zirkularraren testuinguru batean (gaikako bilketa, tratamendu-zentroa, energia lortzea mugikortasun deskarbonizatu baterako...) horren erakusgarri onak dira.



Eskualde-espirtua bultzatu da, biztanlegune handien eta landa-arloko ezaugarriak dituzten udal txikien arteko orekari arreta ematea handituta, Ezkabako Parkea eta Ibai Parkea aurreratzearekin, eta bai erronka berri bat sartzea eren, gure instalazioen prebentziora bideratuta ingurune naturalean, inguruko toki-erakundeak kontuan hartuta. Ezin da lurralde hau ulertu, Iruñerria, metropoliaren eta inguruan duen lurraldearen artean dagoen elkarrenganako mendekotasun handia gutxietsita. Batak zerbitzuak eta ekonomia ematen ditu, eta lurraldeak, berriz, ura eta espazioa bezain funtsezkoa den zerbait ematen du, baita hiriko hondakin ugariak tratatzeko espazioa ere.

Azkenik, berrikuste-lan honetan parte hartu duten erakundeko pertsona guztiei lan egin izana eskertu nahi diet, beste behin ere agerian uzten baitu erakunde honek eta bertan lan egiten dutenek aurrea hartzearekin, eraginkortasunarekin eta herritarrei zerbitzua ematearekin konpromisoa hartuta jarraitzen dutela.

## **2. Sarrera**

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak erakundearen eta bera kudeatzeko sozietatearen (Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.) Plan Estrategikoa (PE) onartu zuen 2016ko urrian, 2017-2030 aldirako. Gauzatzeko halako epe luzea ezartzearen arrazoia izan zen IMk eta SCPSAk aurre egin behar zieten erronken zati esanguratsu batek epe hori behar zuela egikaritzeko. Gainera, zerbitzua ematen dion gizartean gertatu diren eta gertatuko diren aldaketak aurreratu behar zituen erakundeak, eta hain desberdina izango den gizarte horri, 2030eko Iruñeko eta Iruñerriko gizarteari, erantzuna emateko jarduketak hasi behar zituen.

Epea luzea zela jakitun izanik, 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoaren dokumentuak berak barne hartu zuen atal bat, non hedatzea, jarraipena egitea eta eguneratzea aurreikusten zen.

Hedatzea eta jarraipena egitea ekitaldi bakoitzean egin da (2017, 2018, 2019 eta 2020), Urteko Kudeaketa Planen bidez (UKP). Eta haien ezarpena sei hilean behin eta urtean behin ebaluatu da, gobernu-organoei eta herritarrei helarazitako kudeaketa-txostenetan jaso izan den moduan.

Plan Estrategikoa eguneratzea ebidentzia honen aurrean hartzen zen aintzat: ekimen eta proiektu asko garatzen eta amaitzen joango ziren aldi berean, herritarrei arreta hobea emateko aukera berriak agertuko ziren, etengabeko bilakaeran dagoen gizarte batean bizi garela kontuan izanda. Horrenbestez, ezarri zen Plan Estrategikoa berrikusi eta eguneratu egin behar zela, gutxienez, lau urtean behin eta, gainera, egoerak hala egitea aholkatzen zuen uneetan.

2019ko irailean legislatura aldatu zen eta IM eta SCPSAko gobernu-organismoak berritu ziren, maiatzeko toki-hauteskundeen ondotik. SCPSAn, 2020ko urtarrilaren 1ean, erreleboa eman zen Zuzendaritza-



Gerentzian, eta gero zuzendaritza-egitura egokitu zen, otsailean Administrazio Kontseiluak onartu zuena.

Egiturazko aldaketa horiei COVID-19ak eragindako pandemia gehitu behar zaie. Pandemia horretan murgilduta gaude eta inpaktu ikaragarria ari da izaten gizarte osoan eta bere alderdi guztietan, logikoki IMri eta SCPSAri ere eragiten dien inpaktua.

Aldaketa- eta ziurgabetasun-testuinguru honetan egin diogu aurre, beraz, IMren eta SCPSAren Plan Estrategikoa berrikusi eta eguneratzeari. Pentsatu dugu egokia zela analisirako eta gogoetarako gune hau zabaltzea, egungo egoeraren baldintzatzaileek IM eta SCPSAren ikuspegi estrategikoa gehiegi desitxuratu edo eraldatu gabe. Bertan, duela lau urte zehaztutako erronka eta proiektuetako asko berresten dira eta erronka berriak sartzen dira beste batzuetan, aurreikusten ditugun etorkizuneko agertokietan gizarteari erantzuteko modu onena bilatzen.

## **2.1. IMren eta SCPSAren jatorria eta bilakaera**

Mankomunitateak toki-erakundeak dira, ez lurraldekoak, beren eskumenekoak diren zenbait lan eta zerbitzu batera gauzatzeko borondatez elkartzen diren udalerriek eratutakoak. Erakunde hauen erregulazioan helburuen espezialitate-printzipioak eraentzen du, eta, beraz, osatzen duten elkartzea ezin da izan udal-eskumen guztietarako.

Iruñerriko Uren Mankomunitatea orain dela 38 urte sortu zen, 1982ko ekainaren 26an. 4 udalerrik eta 47 kontzejuk eratu zuten, uraren arloko eskumenak eta zerbitzuak (hornidura, saneamendua eta arazketa) kudeatzeko helburu bakarrarekin, eta Nafarroako Foru Diputazioaren parte-hartzearekin, elkarlan eginkizunean.

Hasieratik bertatik, zerbitzu publikoak kudeatzeko, Mankomunitateak kudeaketa zuzenaren formula aukeratu zuen, merkataritzako sozietatearen bidez (haren kapital soziala osorik zegokion Mankomunitateari). Hortaz, 1982an bertan Iruñerriko Urak, S.A. sozietatea (ACPSA) sortu zen.

1983. eta 1986. urteen artean toki-erakunde berria sendotzen joan zen, eta beste udalerrik eta kontzeju batzuk sartzen bertan. Hartara, horrek eta era erkidetuan egindako kudeaketaren bidez lortzen zihuan emaitzek ematen zioten gogobetetasunak ekarri zuen 1986an estatutuak aldatzea, beste zerbitzu batzuk ematea bere gain hartzeko helburuarekin, hasiera batean, hiri-hondakinak bildu eta tratatzea. Orduan, Iruñerriko Mankomunitatea izena hartu zuen. Aldaketa horrekin koherentzian, 1987an, hondakinak kudeatzeko, Iruñerriko Hondakinak, S.A. sozietatea (RCPSA) sortu zen.



Gero, 1992an, bi sozietateak batu egin ziren, Iruñerriko Urak, S.A. eta Iruñerriko Hondakinak, S.A., eta bi zerbitzuak zuzenean kudeatzeko enpresa bakarra gelditu zen, Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. (SCPSA) izenekoa. Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatearen funtzionamendu-araudien oinarriak dagozkien estatutuetan jasota daude, eta bien arteko harremanak Iruñerriko Mankomunitatearen eta SCPSA sozietatearen arteko Harremanen Erregelamenduaren bidez arautzen dira.

1998an, "beste zerbitzu publikoetan gaur arte erakutsi duen gaitasuna kontuan hartuz", 8/1998 Foru Legeak, ekainaren 1ekoak, Iruñerriko bidaiari-garraio erregularrari buruzkoak, Iruñerriko Mankomunitateari esleitu zizkion bertan zeuden garraio publikoko eskumenak, baldin eta hiri-garraioaren berariazko aplikazio-esparruan sartuta zeuden udalerrri guztiak eta bakoitza integratzen baziren. Eskualdeko hiri-garraiorako aukeratu zen kudeaketa formula, ordea, zeharkako kudeaketakoa izan zen, uraren ziklo integralerako eta hiri-hondakinatarako hautatutakoa ez bezala.

2005. urtean, Mankomunitateak bere gain hartu zuen taxien zerbitzua kudeatzea, 2005eko ekainaren 30ean Nafarroako Parlamentuak onartu zuen 9/2005 Foru Legeari jarraikiz. Hartara, zerbitzua batera emateko eremu bat sortu zen, Mankomunitateak kudeatua eta Iruñerriko 19 udalerrri hartzen dituen.

Azkenik, 2007an, Mankomunitateak Iruñerriko Ibai Parkearen kudeaketa hartu zuen bere gain, 2000. urteaz geroztik zeregin hori gauzatu zuen Ibai Parkearen Partzuergoa desegitearekin batera.

## 2.2. Zerbitzuak emateko esparrua

Egun, 50 udalerrrik eratzen dute, borondatez, Iruñerriko Mankomunitatea (udalerrri horiek, era berean 175 kontzeju hartzen dituzte), eta, guztira, 374.302 biztanleri ematen die zerbitzua, 280 biztanlegune bereizitan banatuta.

Ondoren dagoen taula honetan IM-SCPSAren bilakaeraren gertaera garrantzitsu nagusiak daude jasota, eta bai egun zerbitzu desberdinak ematen dizkieten toki-erakundeak eta biztanle-kopuru osoak ere:


<b>IM ETA SCPSA-REN BILAKAERAREN GERTAERA GARRANTZITSUAK</b>	<b>Urtea</b>	<b>Eguno udalerrriak (2019/01/01)</b>	<b>Biztanle-kopuruak (2019/01/01)</b>
IM eta ACPSA* sortzea	1982	50	374.188
Uraren Ziklo Integrala	1982	42	369.592
Hondakinen Bilketa	1987	48	373.509
Hiri Garraioa	1999	18	351.777



Taxien Zerbitzua	2005	27	366.846
Iruñerriko Ibai Parkea	2007	9	98.960
*ACPSA SCPSA bihurtu zen 1986an, eta azken horrek RCPSA bereganatu zuen 1992an.			

Antolaketako formula eta kudeaketa-erregimen hauen arabera ematen dira zerbitzuak:

- Uraren Ziklo Integrala (Iruñerriko Ibai Parkea barnean hartuta) eta Hiri Hondakinak, Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatearen bidez, osorik IMrena den kudeaketa zuzeneko sozietate gisa.
- Eskualdeko Hiri Garraioa, zeharkako kudeaketa eta IMren administrazio-kontzesio bidez.
- Taxien Zerbitzua, zerbitzua batera emateko eremuaren eskumenaren titulartasunaren bidez. IMk emandako auto-taxien administrazio-lizentzien bidez garatzen da.



Uraren Ziklo Integralaren barnean sartuta dago Iruñerriko Ibai Parkearen kudeaketa.

### 2.3. Gobernu-organoak

IMren eta SCPSAren gobernu-organoen osaera eta eginkizunak hauek dira:



Organoa	Xedea eta osaera
Batzar Nagusia	Erkide-tuta dauden udal guztiak ordezkatzten dituen organoa da. Egun 54 kidek osatzen dute: 27 kide Iruñeko Udalaren ordezkariak dira eta beste 27ak Iruñerriko gainerako udaletakoak. Batzar Nagusiko kide guztiak beren udaletako kide hautetsiak dira.
Lehendakaria	Batzar Nagusiko kideek aukeratzen dute, batzar hori eratze-ko saioan bertan. Beste eskudantzia batzuen artean, erakundearen gobernu- eta administrazioa zuzentzea dagokio.
Batzorde Iraunkorra	Lehendakariak eta lehendakariak berak Batzar Nagusiko kideen artean aukeratzen dituen kideek eratzen dute. Batzordearen antolaera Batzar Nagusian ordezkaturako udal desberdinen artean eta aipaturako gobernu-organoren barnean eraturako talde politiko desberdinen artean dagoen proportzionaltasunari egokitzen zaio. Lehendakariari laguntzea dagokio Batzorde Iraunkorrari, Batzar Nagusiak edo lehendakariak berak bere esku uzten dituen eskudantziak garatuta.

**Kudeaketa-sozietatea: Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.**

Organoa	Xedea eta osaera
Biltzar Nagusia	Iruñerriko Mankomunitateak osatuta dago, eta, zehazkiago, Batzar Nagusiko kide guztiak eta berberak. Sozietatearen zuzendaritza- eta administrazio-organoren goren- da.
Administrazio Kontseilua	Sozietatearen administrazioa eta ordezkari-za gobernatzeaz arduratzen da, Biltzar Nagusiar- berariaz erreserbatutako kasuetan izan ezik. Gutxienez bederatz- administrazio-zailek osatzen dute, eta gehienez hamaseik, eta Biltzar Nagusiar- dagokio kopurua erabakitzea.
Zuzendaritza- Gerentzia	Zerbitzu tekniko eta administrazio- guztiak zuzentzen ditu.

## 2.4. Interes-taldeak

IM-SCPSAren misioa da “bizi-kalitatea hobetzen laguntzea Iruñerrian, uraren, garraioaren, hondakinen eta Ibai Parkearen zerbitzuak kudeatzen”. Horrenbestez, erakunde publiko bat dugu aurrez aurre, funtsezko zerbitzuak eta behar-beharrezkoak ematen dizkiena herritarrei, eta bere gobernu-organoren jatorri politikokoak dira.

Misio horretatik abiatuta, oinarritz-koa da aintzat hartzea, ardatzak, erronkak eta jarduketa estratergi-koak ezartzeko, erakundearen funtzionamenduan interes zuzena duten taldeak, ikuspegi desberdinetatik.

Pertsona berberak dira –Iruñerriko biztanleak– aldi berean zerbitzu horien hartzaileak, erakundearen gobernu- gaizatzen dutenak beren ordezkari politikoen bidez eta bai onuradun nagusiak ere, IM-SCPSA- gaizatutako eginkizunaren gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-ikuspegitik.





Testuinguru horretan, interes-talde hauek identifika ditzakegu:

- **Herritarrak eta erabiltzaileak**

IM-SCPSAren ustez, interes-talde hau gure zerbitzuetako edozein ematen diogun herritarren multzoak eratzen du. Uraren edo hondakinen kasuan, egia esan, Iruñerrian bizi diren eta/edo lan egiten duten pertsona guztiak dira, haiek guztiek kontsumitu edo erabiltzen baitituzte gure zerbitzuak. Garraioaren kasuan, eskuarki edo noizean behin baliatzen dutenak dira.

- **Udalerriak**

Oinarrizko toki-erakundeak dira, borondatez elkartu direnak zerbitzu horiek beren lurraldeetan emateko. Udalak dira, beren kasuan, kontzejuak har ditzaketanak barnean. Haien ordezkariak erakundeko gobernu-organoak osatzen dituzte.

- **Pertsonak**

IM-SCPSAko plantillako langileek osatutako interes-taldea da.

- **Erakundeak, organizazioak eta enpresak**

IM-SCPSAk harremanak ditu kanpoko erakundeen kopuru handi batekin, eta haien artean daude erakundeak, hornitzaileak, kontzesiodunak eta abar. Multzo zabal horren barnean, lehentasunezko zatitza jotzen ditugu IM-SCPSAren misioa garatzen laguntzen dutenak eta bide sistematiko eta egituratu bidez gurekin lan egiten dutenak.

- **Ingurune soziala**

Erreferentziazko gure ingurune soziala Iruñerria da. Lehenago adierazi dugun moduan, ematen ditugun zerbitzuen hartzaile ere badiren herritarrek osatzen dute ingurune sozial hori. IM-SCPSAn ulertzen dugu gure balio erantsiaren katea zerbitzuak eman eta bezeroekiko harremanak kudeatzetik harago doala eta barnean hartzen duela gure erantzukizun soziala kudeatzea garapen iraunkor baterantz. Horrenbestez, herritarrekiko eta agente sozialekiko harremanen kudeaketa proaktiboa hartzen dugu geure gain, jarduteko ildoen multzo zabal batean ikusgai dena, dagozkien baliabide pertsonal eta ekonomikoekin.



## 2.5. IM/SCPSA, kopurutan

INFORMAZIO OROKORRA	ALDERDIA	UNITATEAK
<b>KOPURU OROKORRAK</b>	Plantilla	7 pertsona (IM) 490 pertsona (SCPSA)
	IM-SCPSAren 2019ko aurrekontu bateratua	124.979.921 euro
	UZI, guztira (2019ko kontu-itxiera)	40.158.164,96 euro
	Hondakinak, guztira (2019ko kontu-itxiera)	35.611.012,08 euro
	EHG, guztira (2019ko kontu-itxiera)	35.634.399,46 euro
	Aurrekontua: gastu arruntak (2019ko kontu-itxiera)	%94,09
	Aurrekontua: diru-sarrera arruntak (2019ko kontu-itxiera)	%97,63
ZERBITZUAK	JARDUERA	UNITATEAK
<b>UZI (2019)</b>	Ekoizitako ura	30.335.107 m <sup>3</sup>
	Hornidura-sarea	1.496 km
	Araztutako ura	36.377.037 m <sup>3</sup>
	Saneamendu-sarea	1.689 km
<b>IBAI-PARKEA (2020)</b>	Ibilbidearen luzera	34 km
<b>HIRI-HONDAKINAK (2019)</b>	Sortutako hondakinak	150.751 t
	Berreskuratutako hondakinak	%39,12
	Zabortejira bideratutako hondakinak	%60,93
	Edukiontziak	16.356




	Etxeko konpostajeak	3.389 familia	
	Auzoko konpostajeak	40 gune	
<b>EHG (2019)</b>	Bidaiak	40.639.355	
	Autobusak	148	
	Ibilitako kilometroak	8.017.574 km	
	Taxiak	315 lizentzia	
<b>ESPARRUA</b>	<b>JARDUERA</b>	<b>UNITATEAK</b>	
<b>ERLAZIOA</b> <b>INGURUNEAREKIN</b> <b>(2019)</b>	Kudeatutako kontratuak, uraren edo hondakinen arloan	201.923	
	Aurrez aurreko arreta	57.229 arreta	
	Telefono bidezko arreta	112.340 dei	
	Arreta telematikoa	33.635 arreta	
	Ingurumen-heziketarako programa	47.563 parte-hartzaile	
	Karbono-aztarna	47.211,4 tCO <sub>2</sub> baliokide	
	Sortutako energia berriztagarria	45.255.368 kWh	
<b>HERRITARREN</b> <b>GOGOBESETASUN</b> <b>A (2019)</b>	Bezeroen gogobetetasun globala, UZI	0-10 eskala	8,2
	Bezeroen gogobetetasun globala, HH		7,8
	Bezeroen gogobetetasun globala, EHG		7,8
	Gogobetetasun globala, taxia (2018)		7,9
	Gogobetetasun globala, Ibai Parkea		8
	Gogobetetasuna, aurrez aurreko arreta		9,3
	Gogobetetasuna, arreta telefonikoa		8,8
	Gogobetetasuna, arreta telematikoa		8,2



### 3. Berrikusteko prozesua

Plan estrategiko honen 2017-2020 berrikustea parte-hartzean oinarrituta egin da, 6 lantalderen bidez, bat ardatz estrategiko bakoitzetik, eta haietan 42 lagun aritu dira lanean, IM eta SCPSAren ikuspegi desberdinei heltzen. Era berean, Enpresa Batzordeari eta erakundeko gobernu-organoei zabaldu zaie parte-hartzea.

Prozesuak maiatzetik urrira arte iraun du, eta eskema hau izan du:





## **4. Misioa, ikuspegia eta balioak**

### **MISIOA**

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN BIZI-KALITATEA HOBETZEAN LAGUNTZEA, URAREN, GARRAIOAREN, HONDAKINEN ETA IBAI-PARKEAREN ZERBITZUAK KUDEATUTA.

### **IKUSPEGIA**

IM-SCPSA EREFERENTZIAZKO ERAKUNDE GISA, ERAGINKORTASUN, IRAUNKORTASUN ETA BERRIKUNTZAN.

### **BALIOAK**

#### **GARDENTASUNA**

Informazio osoa, zehatza eta ulergarria ematen dugu, erakundeak bere misioa betetzean gauzatzen dituen prozesuen, erabakien eta emaitzen gainean.

#### **PROFESIONALITASUNA ETA KONPROMISOA**

Ahalik eta zorrotasun tekniko handienarekin lan egiten dugu, gutako bakoitzak bere onena emanda.

#### **AURRERAPENA, MALGUTASUNA ETA BIZKORTASUNA**

Gutaz espero dena ezagutu eta ikertzen dugu, aldaketara egokituta, eta planteatutako erronketara epean egokiak diren konponbideak eskaintzen ditugu.

#### **KOORDINAZIOA ETA TALDE-LANA**

Norbanakoon ahaleginen batura baino gehiago gara, taldearen sendotasunean eta lanean elkarlanean aritzean sinesten dugu.

#### **SORMENA**

Egiteko moduak zalantzan jartzen ditugu, eta aukera berritzaileak, eraginkorrak eta askiesgarriak bilatzen ditugu.



## 5. Ardatzen eta erronken gogoeta estrategikoa

Plan estrategiko hau berrikusteko prozesuan deskribatutako planteamenduaren eta analisiaren arabera, bere **sei ardatz estrategikoen** arabera egin da berrikustea:

- 1. ardatz estrategikoa. Erakunde-esparrua.
- 2. ardatz estrategikoa. Herritarrekiko eta ingurunearekiko harremanak.
- 3. ardatz estrategikoa. Zerbitzu iraunkorrak herritarrentzat:
  - 3.1. Uraren Ziklo Integrala eta Ibai Parkea.
  - 3.2. Hiri-hondakinak.
  - 3.3. Garraioa.
  - 3.4. Klima-aldaketa.
- 4. ardatz estrategikoa. Bultzada teknologikoa herritarren alde.
- 5. ardatz estrategikoa. Pertsona antolatutak.
- 6. ardatz estrategikoa. Baliabide ekonomikoak.

Jarraian, ardatz estrategiko bakoitzaren jarraipena eta gogoeta dago. Analisi honen emaitza moduan, erronka eta proiektu berriak sortu dira eta aldaketak izan dira lehendik zeuden batzuetan. II. eranskinean (Proiektuen eta Helburuen hedatzea) **Ardatz estrategikoa-Erronka Estrategikoak-Proiektuak-Helburuak** konexioaren ikuspegi bat eskaintzen da, egindako lanaren arabera eguneratua, ardatz eta erronka estrategikoak jarduketetan nola zehazten diren ikusi ahal izateko.

### 5.1. Lehen ardatz estrategikoa. Erakunde-esparrua.

Bere sorreratik bertatik, IM eta SCPSA zuzenean lotuta egon dira ingurumen-erronkei irtenbidea emateko premiarekin, besteak beste, udalek bereiz arituta era eraginkorrean konpondu ezin zituzten uraren hornidura, hondakin-uren saneamendua eta hondakinen bilketa eta tratamendua. Eskualdeko hiri-garraioa ere esparru horren barnean dago.

Denborak aurrera egin ahala, XXI. mende bete-betean, klima-aldaketa eta gizarte osorako ekarriko dituen ingurumen-erronkak ditugu aurrez aurre. **Erakunde honen xedea edo apustua da karbono-aztarna neutroa izatea lortzea 2030erako**, eta, horrenbestez, jarduketa estrategikoetako askok zentzu edo norabide horretan bideratuta egon behar dute, Europar Batasuneko NEXT GENERATION



ekimenean aurkeztu diren proiektuetan jaso den moduan. Aurkeztutako programa horiek 2017-2030 aldirako plan estrategiko honek eratzten duen bide-eroritik sortzen dira.

COVID-19aren pandemiaren ondorioek osasun-krisi sakona eta atzeraldi ekonomiko larria piztu dute, toki-erakunde txiki askoren gobernantza-krisia areagotzen ari dena, baliabide ekonomiko, tekniko eta bai biztanleria-gabeziaren ondorioz, aspaldi lurraldea bera maneiatzean inplikaturik. IMren interesa da ongi kontserbatuta eta orekatuta dagoen lurralde bati eustea, bai bere instalazioen segurtasunerako, bai eta hornidura hartzeko eremuari eusteko baldintza natural onenetan. Eragin berezia du gure azpiegituren ingurunean sute handiak gertatzeko probabilitateak, haien inguruan dauden zuhaitz-masen trinkotasunarengatik (edateko uren araztegiak) edo perimetroen inguruan dauden laborantza estentsiboko lursailengatik (biltegiak, hondakinen zentroa...). Era berean, esanguratsua da hornidurako gure kanalak eta hoditeriak ibiltzen diren mazedetako batzuen egonkortasunean arriskua handitu izana eta, lurraldearen erabilera berrien ondorioz, mehatxatuta egon daitezkeenak.

Arlo honetan, Mankomunitateak laguntza teknikoa eta materiala eman diezaike Iruñerriko erakundeei, eta gure lurraldearen ingurumen-egoera hobetzen duten jarduketan koordinazio- eta sustapen-lanak har ditzake bere gain. Halaber, kontzejuenak edo udalenak berenak diren lurraldeak baino handiagoak direnetan baterako jarduketak koordinatu ditzake, eta bai eskalako ekonomia baten onurak itzuli ere toki-erakundeei berei.

Ilido honetan, **Ezkabako Eskualde Parkearen proiektua amaitzea nabarmendu behar da, 2020aren amaieran onartzen denean Nafarroako Gobernuaren aurrean izapidetutako Udalez gaindiko Plan Sektoriala (UPS)**. 2021etik aurrera eratuko da Ezkabako Parke berriaren esparruko toki-erakunde taldea, UPSan aurreikusitako proiektuak eta ekintzak gauzatzeko Mankomunitate hau aukeratuko duena kudeatzeko modu gisa.

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA. ERAKUNDE-ESPARRUA (EE).	
KOD.	ERRONKA ESTRATEGIKOAK
1. EE	Ezkabako Eskualde Parkearen kudeaketa (eskuduntzak hartzea, eta UPSko proiektuak eta ekintzak gauzatea).
2. EE	IMren instalazio kritikoaren ingurunean arriskuen prebentzio-paisaien diagnostikoa eta proiektuak egitea.
3. EE	Eskualdean ingurumen-inguruneen erabilera publikorako planak egitea.



## 5.2. Bigarren ardatz estrategikoa. Herritarrekiko eta ingurunearekiko harremanak.

Iruñerriko Mankomunitatea, bai tokiko mailan, eta bai eskualdeko eta nazioko mailan, eragin sozial zabaleko arloetan murgilduta dago, ezinbestekoak diren zerbitzuak emanez, izaera teknologiko nabarmenarekin eta herritar guztiekin harreman zuzen eta egunerokoan. Hori dela-eta, uste dugu erakunde aurreratuek ezarri behar dituzten lehentasunak erronka estrategiko hauetan bilduta gelditzen direla:

1. Gardentasunean sakontzea, aldaketarako faktore gisa, eta herritarrekiko harremanak hobetzean.
2. Herritarren inplikazioa bultzatzea, parte hartzeko prozesu eraginkorrak antolatuta.
3. Herritarrekin bi norabideko komunikazioa sustatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez.
4. Teknologia berriek eragindako eredu-aldaketara egokitzea herritarrekiko arreta.
5. Kanpora zabaltzean eta interes-taldeekiko harremanetan sakontzea, elkarlanean aritzeko eta ezagutza helarazteko espiritua izanda.
6. IM eta SCPSAren gizarte- eta ingurumen-erantzukizunaren irudia bultzatzea.

**Gardentasunari** dagokionez, egungo ataria eguneratu beharko da, alderdi formalak eta edukienak berrikusita, estandar aitortuak aplikatuta, besteak beste, ITA, interesdunek datua kudeatzea ahalbidetuko duen informazioa sartuta, eta atariaren berri izatea eta hura erabiltzea sustatuta.

**Parte-hartzea** errealitate bat da jada, IM eta SCPSAren kasuan herritarren eguneroko bizimoduari hain lotuta dauden zerbitzu batzuk kudeatzean erabakiak hartzeko prozesuetako askotan lagun egin behar duena. Hori dela-eta, beharrezkoa da metodologia estandar bat sortzea, baliabide teknologiko malguak izango dituen eta ahalbidetuko duena parte-hartze prozesu arinak eta zorrotzak jartzea martxan, lortutako emaitzak herritarrei era egokian itzultzea bermatuko dutenak.

Herritarrekin bi norabideko komunikazioa edukitzeak ikuspegi berri bat hartu du, herritarren eguneroko errealitatean **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia** berriak sartzean. Errealitate berri hori IM eta SCPSAren eta ematen dituzten zerbitzuen hartzailleak direnen arteko erlazioa handitzeko aukera moduan ageri zaigu. Horrenbestez, erakunde honek helburu gisa planteatu behar du sare sozialak eta beste baliabide digital batzuk (webgunea, bloga, aplikazioak...) garatzeko, eguneratzeko, presentzia izateko eta erabiltzea sustatzeko plan bat egitea, hurbiltasuna eta gardentasuna handitzeko ezinbesteko baldintza gisa.

**Herritarren arretari** dagokionez, eredu tradizionalan –nagusiki aurrez aurreko arretan eta telefono bidezkoan oinarritua– gertatzen ari den aldaketa bat dugu aurrez aurre. Nahiz eta bitarteko





telematikoen bidezko arreta egun ere ematen ari den, ez da beste bideak bezain irisgarria eta ez dago hain estandarizatuta.

Egungo zerbitzua kanal anitzekoa eta zerbitzu anitzekoa da, eta hori *a priori* abantaila da, baina garrantzitsua da gertatzen doazen aldaketak kontuan hartzea, sartzen doazen izapideen kantitate eta konplexutasunarengatik eta zerbitzuan erabilgarri dauden baliabideengatik.

Arreta herritarrengan jartzen jarraitu behar dugula eta herritarrei arreta emateko prozesuaren egungo kudeaketa- eta pertzepzio-emaizak onak direla aintzat hartuta, gogoeta bat egin beharko genuke alderdi hauetan:

- Herritarrei arreta emateko bide edo kanal desberdinak egungo eta etorkizuneko errealitatera egokitzea, kontuan hartuta teknologia berriek eta zerbitzuen bilakaerak gure esku jartzen dituzten aukera guztiak. Horretarako beharrezkoa izango da bezeroen profil edo ezaugarri desberdinak aztertzea, beren egungo eta etorkizuneko beharrak, arreta behar izaten duten ordu-tarteak, beste administrazio batzuekin interakzioan aritzeko aukerak, herritarrei izapide batzuk bideratzea errazteko, eta beste aldagai ukitu batzuk.
- Gure zerbitzuei buruzko informazioa eta mota guztietako eskaerak, erreklamazioak eta kexak izapidetzeko moduari buruzko eskuragarria, erabilgarria eta eguneratua izan dadila ziurtatzea kanaletako edozeinetan. Metodologia bat ezarri beharko da, sistematikoki berrikusteko gure zerbitzuen informazioarekin lotutako edukiak, nola bideratu webgunean, egoitza elektronikotan, aplikazioetan...

**Interes-taldeekiko** harremanari dagokionez, IM eta SCPSAren estrategiak nahitaez hartu behar du zeharkako metodologia bat finkatzea erakunde osorako, aipatutako talde horiek lehenetsiko dituen, modu proaktiboan sustatuta foroak sortzea eta informazioa zentralizatuta, era egokian zabaltzeko aukera egon dadin. Alde horretatik egokitzen jotzen da helburu posible moduan planteatzea komunikazioa hobetzea erakunde erkidetuekin (bai udalen mailan, bai eta, bereziki, kontzejuen mailan), harreman egonkorra unibertsitateekin eta prestakuntzako zentro edo teknologikoekin, harremanak elkarrekin sozialekin eta auzotarren elkarrekin, eta inplikazioa eta presentzia aktiboa, IM eta SCPSAren jarduerari lotutako eskualdeko edo nazioko foro edo eztabaida-lekuetan.

Azkenik, erakundeak kontuan hartu behar du, gainera, **Gizarte Erantzukizun Korporatiboari** lotutako mugimendu zabalean, erakunde publiko eta pribatu ugari hartzen dituenean, sartzeko beharra. Horretarako, IM eta SCPSAren adierazleen zentralizazioa eta diagnostikoa amaitu behar da, metodologia estandar baten bidez (InnovaRSE edo antzekoa), gauzatzen diren ekintzak gizartearen zabaltzeko aukera emango duen jarduketa-plan bat egin ahal izateko.



2. ARDATZ ESTRATEGIKOA. HERRITARREKIKO ETA INGURUNEAREKIKO HARREMANAK (HH).	
KOD.	ERRONKA ESTRATEGIKOAK
1. HH	Gardentasunean sakontzea, aldaketarako faktore gisa, eta herritarrekiko harremanak hobetzean.
2. HH	Herritarren inplikazioa sustatzea, parte hartzeko prozesu eraginkorrak antolatuta.
3. HH	Herritarrekin bi norabideko komunikazioa sustatzea, IKTen bidez.
4. HH	Teknologia berriek eragindako eredu-aldaketara egokitzea herritarrekiko arreta.
5. HH	Kanpora zabaltzean eta interes-taldeekiko harremanetan sakontzea.
6. HH	Erakundearen gizarte- eta ingurumen-erantzukizunaren irudia bultzatzea.

### 5.3. Hirugarren ardatz estrategikoa. Zerbitzu iraunkorrak herritarrentzat.

**Lehen ardatz estrategikoan (Erakunde-esparrua)** aipatu den moduan, IMren eta SCPSAren osaketa eta garapena zuzenean lotuta egon da, une bakoitzean, ingurumeneko arazo handiak konpontzeko premiarekin, besteak beste, urez hornitzea, kantitate nahikoan eta kalitate onean, hondakin-urak sanotzea, hondakinak bildu eta tratatzea edo eskualdeko hiri-garraioa bera kudeatzea.

Horrenbestez, erakundearen garapena Iruñerriko ingurumena nabarmen hobetu duten jardueri lotuta egon da eta, horrekin batera, biztanleen bizi-kalitatea hobetu dutenei. Halaber, Iruñerriko herritarrak berak benetako agente aktiboak izan dira ingurumen-politika horretan.

Ingurumeneko iraunkortasun-irizpidea erakundeak garatzen dituen jarduera guztietan presente dago.

#### 5.3.1. Uraren Ziklo Integrala eta Ibai Parkea.

Uraren Ziklo Integralaren gainean esan dezakegu –IMk eta SCPSAk ematen dituzten zerbitzuetan zaharrena– Iruñerriko egungo hiri- eta biztanleria-egituran **Uraren Ziklo Integralaren zerbitzua bermatzeko** beharrezkoak diren azpiegiturak eraikita ditugula eta ustiatze-erregimen egokian.



2013an, SCPSAko Plangintza eta Azpiegituren Sailak hornidurako eta saneamenduko azpiegiturek baloratzeko azterlan bat egin zuen. Txosten horretan, hornidurako eta saneamenduko aktiboak berriro jartzeko balio ekonomikoa 1.200 milioi eurotik gorakoa zen, oso diru-kopuru handia, zerbitzua bermatzeko aktiboen mantentze egokiaren garrantzia nabarmentzen duena. Lurperatutako hoditerien balioa 1.000 milioi eurotik gorakoa da eta beren bizitza baliagarria erabilitako materialaren, lursailaren, operazio eta mantentzearen mende dago neurri batean, nahiz eta batez besteko tartea 40 eta 80 urte artean koka daitekeen. Hoditerien egungo batez besteko adina 30 urtekoa da gutxi gorabehera, eta, beraz, nahiko eguneratua eta ongi dagoen azpiegitura bat dugu. Edonola ere, epe ertain eta luzean inbertsio handiak egin beharko dira kontsumoko uraren hornidura eta kalitatea, saneamendua eta arazketa bermatzeko.

Aurrekoa adierazita, Uraren Ziklo Integralean dauden azpiegituren heldutasunak behartzen gaitu dauden azpiegituren berritze sistematikorako eta mantentze aktiborako plan jarraitu bat diseinatzera jada, zerbitzua ez deskapitalizatzeko. Kontuan hartuta balio ekonomiko izugarria, epe luzerako berrikuntzarako edozein plan iraunkorrek berekin dakar nolabaiteko garrantziko urteko inbertsio-eritmo bat izatea.

Era berean, uraren zerbitzua emateko zain dauden Iruñerriko erakundeak sartzea lagunduko da, beharrezkoak diren proiektu eta obretarako baliabide teknikoak eta giza baliabideak emanez. Haien integrazioa, edonola ere, haiek integartzeko duten nahiaren eta tokiko azpiegituren planaren bidez finantzatzearen mende egongo da. Beste alde batetik, hiri-garapen berriek berekin dakartzate garrantzi eta munta handiko jarduketak, beren kudeaketa eta finantzaketari dagokionez jarraitu beharreko irizpideak ezartzeko aztertu egin beharko direnak, Mankomunitatearen esparrutik kanpoko eskumenak hartzen dituela kontuan hartuta.

Hornidura-zerbitzuaren jarraitutasunari dagokionez, edozein tratamendu-plantatetik hornidura bermatzeko eta lehorreen aurrean larrialdi-plan bat edukitzeko (duela gutxi Ebro Ur Konfederazioak onartua) erronka sortzen da.

Hornidura-iturrietan herri guztietarako erredundantzia osoa lortzeko helburu estrategikoa ere nabarmendu behar da, hartara, hornidura beti bermatuta egoteko, edozein gorabeheraren aurrean, IMren hiru iturrietako batetik (Egillor, Eugi eta Tiebas).

Uraren Esparru Zuzentarau berri bat kaleratzea ere aurreikusita dago, eta badirudi **kontsumoko uraren kalitatean** eskakizun edo exijentzia handiagoa eskatuko duela. Kutsatzaile berrien presentzia eta eragina (urgaineratutako substantziak) agerian jartzen ari da teknika analitiko zehatzagoen bidez, eta gizakion osasunean eta ingurumenean dituzten eraginak larriagotzen ari dira klima-aldaketaren egungo testuinguruan. Ondorioz, handitu egin beharko da ur gordinaren kalitatearen exijentzia, laborategiak egokitzea eta erabilgarri dauden teknika onenak aplikatzea haiek tratatzeko.



**Hornidura-zerbitzua optimizatzeari** dagokionez, kontsumoen kontrolerako, ur-ihesak bilatu eta konpontzeko, eta sarea sektorizatu eta instrumentatzeko politika jarraitu behar da. Hurrengo urteetan egongo den erronka garrantzitsuena izango da kontagailuen teleirakurketa ezartzea, sarearen kontrol dinamikoa egiteko bidea emango baitu, fakturatzeko sistema berria eta erabiltzaileentzako zerbitzu berriak.

Beste alde batetik, Uraren Esparru Zuzentzarauaren testuinguruan, inbertsio-bultzadari eustea funtsezkoa da **hondakin- eta euri-uren saneamendua bermatzeko**, NILSArekin izenpetutako planen bidez, epe ertainerako ikuspegi batekin. Ikuspuntu horrek ekarri beharko luke plan bati heltzea, prezipitazio handiak gertatzen direnean kolektoreetatik ibilguetara gertatzen diren hondakin-uren gainezka-egiteak murriztu eta tratatzeko. Halaber, euri-uren kudeaketari heldu behar zaio, sortzea minimizatuta eta tratamendurako egon daitezkeen teknika onenak ezarrita. Horretarako, kutsaduraren modelizazioa egin beharko da hiri-eremuan, konponbide teknologikoen azterlana, eta beharrezkoa den lege-, finantza- eta tarifa-esparruaren analisia.

Iruñerrian Arazuriko HUA dugu, metropoli-eremuko **hondakin-urak araztea bermatzen duen** instalazioa. Hurrengo urteetan, erronka izango da tratamendu aurreratu berriak aplikatzea, arazketa, lohien tratamendua eta eraginkortasun energetikoa hobetuko dituztenak. Hainbat proiekturi heldu beharko zaio, besteak beste, mikro-kutsatzaileak tratatzeari, prozesua optimizatzeke eta lohia higienizatu eta lehortzeko sistema adituei.

Biztanlegune txikiei dagokienez, arazketa-sistema txikien kopurua gutxitzeko plan bat finkatuko da, nagusiki Arazuriko HUAra konektatzearen bidez edo sistemak araztegi txiki edo ertainetan biltzearen bidez. Halaber, eta Nafarroako Gobernuak sustatutako etorkizuneko Hiri Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailearen arabera, 100 biztanletik gorako herri guztien tratamendu biologikoak eduki beharko dituzte.

Laburbilduz, plan estrategiko hau hornitu behar da eta garatu behar du **2021-2030 aldirako Uraren Ziklo Integraleko Inbertsioen Plana**, IM eta SCPSAren. Dirulaguntzen babes egoera mugatua izango luke eta hauek jasoko lituzke:

- Dauden azpiegituren berritze jarraitua epe luzera.
- Eskualdeko hirigintza-garapenei lotutako azpiegitura berrien kudeaketa, koordinazioa eta finantzaketa.
- Euri-jasen garaian ibilguetara gertatzen diren isurketak murriztu eta tratatzeko eta euri-urak kudeatzeko jarduketak.
- Tokiko arazketa-sistemak hobetzeko jarduketak.



**Iruñerriko Ibai Parkeari** dagokionez, hornidura sendotuzat har daiteke, herritarrek balio handia ematen diotena eta korridore berdearen ikuspegia duena, azpiegitura osasungarri baten zati moduan. Lehenik eta behin, eskualdeko ibaien uberkak ezagutu eta kudeatzean aurrera egiten jarraitu beharko dugu, hiri-ingurune batean dauden habitat naturalak eta uraldien eta uholdeen mende dauden ingurune dinamikoak diren heinean.

Ibai-pasealekua eta bertako jolas- eta aisia-eremuak sendotzen jarraituko da, Nafarroako Gobernuak onartutako UPSaren esparruan dagoen handitze proiektuaren arabera. Hartara, 2020an, ibai-pasealekua Oltzan zabaltzeko obrak amaituko dira, Arazuritik Iberora (6 km), Arga ibaiaren eskualde-zati behean.

2020 honetan, ibai-pasealekuak Urbi ibaian (Uharte-Eguesibar) izango duen ibilbide berrirako kudeaketak hasi dira. 9,5 kilometro izango dira, eta Plazaolaren eta Iratiren bide berdeen bide naturalak lotuko ditu, Pirinioetako hego-isurialdeko Bide Naturalaren Europako proiektuaren-Eurovelo 3 proiektuaren esparruan. Europako proiektu hau hurrengo bi urteetan zabalduko da, eta aurreikusita dago 2022an inauguratzea.

Hurrengo urteetan, ibai-pasealekua Elortz ibaian zabalduko da, bi fasetan. Lehenbizikoa 2022an amaituko da eta 6,5 kilometroko luzera izango du, Zizur eta Galar udalerrien artean. Bigarrenkoa 7 kilometrokoa izango da, Noain-Elortzibar udalerrian.

Ibai-parkea Iberotik Arakil ibaiarekin konektatzeko aukerak aztertu eta gauzatu ere egingo dira, hartara, nabarmen handituta Eskualdeko beste lurralde batzuetaranzko hedatzea.

Era berean, Ibai Parkea oinezkoentzako ardatz moduan hartuko da, eta egokia den tokian txirrindularientzako, Iruñerrian mugikortasun iraunkorra sustatzeko.

Laburbilduz, ardatz estrategikoaren ikuspegi orokorra eguneratu da, berriro egituratuta, hartara, bere misioa zein den eta hura bermatzeko zein proiektu diren beharrezko ikusteko ikuspegi hobe bat edukitzeko. 2016an formulatutako proiektuetakoren bat amaitu egin da, eta erronka berriak sartu dira PEan gelditzen den indarraldirako.

<b>3. ARDATZ ESTRATEGIKOA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA ETA IBAI-PARKEA (ZIHU).</b>	
<b>KOD.</b>	<b>ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>
<b>1. ZIHU</b>	Zerbitzua bermatzea.



<b>2. ZIHU</b>	Kontsumoko uraren kalitatea bermatzea.
<b>3. ZIHU</b>	Hornidura-zerbitzua optimizatzea.
<b>4. ZIHU</b>	Hondakin- eta euri-uren saneamendua bermatzea.
<b>5. ZIHU</b>	Hondakin-uren arazketa bermatzea.
<b>6. ZIHU</b>	Ibai Parkea handitzea eta eskualde-mugikortasun iraunkorreko ardatz gisa integratzea.

### 5.3.2. Hiri-hondakinak.

Beharbada, hau izango da etorkizunerako garrantzi handieneko erronkak planteatzen diren IM eta SCPSAren arloa, bai berehalako etorkizunerako, bai epe luzerako ere, eta bai, aurreikustekoa denez, erabaki estrategiko nagusiak sendotzea ekarriko duen arloa ere. Aurretik lortutako helburuen atzera begirako analisia –IM-SCPSA aitzindaria izan da helburu horiek lortzen– alderatzeko puntu egokia da, egungo erronkei ekiteko eta sektorean erreferentziazko kokaguneari heltzeko berriz.

#### Herritarren lankidetzak

Hiri-hondakinen kudeaketa zuzenean, hasteko, herritarren lankidetzak konpromiso handia behar da (pertsonek, familiak eta enpresak). Herritarren lankidetzak hondakinak murrizteko eta jatorrian bertan bereizteko (gai organikoak, papera, ontziak, beira, birzikla daitezkeen beste material batzuk...) arloan ekar dezakeen guztia funtsezko pausoa da, hondakinetarako aurreikusitako berreskuratze-helburuak lortzeko eta ahalik eta gehiena gutxitzeko zabortegira eramaten dena.

Inolako makinak eta inolako industria-prozesuk ezin dituzte hondakinak berreskuratu, pertsonak jatorrian murriztu eta bereizten dituzten eraginkortasun berberarekin.

Hori dela-eta, etxebizitzetako hondakinak murrizteko eta bereizteko katearen lehen maila honek berariazko ikuspegia eduki behar du, bere herritar-agiria emanda eta hartara bideratuta eraginkorrenzat jotzen diren baliabideak eta neurriak.

#### Hondakinen bilketa

Hondakinen kudeaketaren kateko bigarren maila bilketa da. Arlo honetan, IM-SCPSAren xedea da herritarren iriste-erraztasuna bermatzea hondakinak botatzeko sistema batera, hartara, ahalik eta gehiena mesedetzeko birziklatzeko eta berreskuratze politikak.



IM-SCPSAk erabilera optimizatzeko bidea emango duten teknologiak sartuko ditu **edukiontzien sisteman** eta bai hondakinak sortzeagatiko tasaren printzipioa doitzeko aukera emango duten sistemetan aurrera egitea ahalbidetuko dutenak ere.

Bilketa-sistemaren ikuspegitik, plan honetan, teknologiaren erabilera areagotzearen, kostuak murriztearen eta ingurumenerako eragina minimizatzearen alde egingo da, oso bereziki, gasolioa ordeztuta, hiri-hondakinetako kamioien erregai moduan.

Ildo honetan, aipatu behar da 2021-2022an martxan jarriko direla Erripagaña eta Lezkairu-Mutiloarteko bilketa pneumatikorako sistemak.

Berrikuste honetan jada aldatuta dago hondakinen ordenantza eta badugu **“Iruñerrian edukiontzietarako sarbidea kontrolatzeko sistema batez hornitzea, hura kokatzea, integratzea, martxan jartzea, ustiatzea eta haren mantentzea egitea”** lizitazioa, eta aurreikusita dago 2020aren amaiera baino lehenago esleitzea eta hedatzen hastea 2021eko udazkenean. Orain arte lortutako emaitzekin esan dezakegu Espainiako legerian eta Nafarroako Hondakinen Planean hondakinak berreskuratzeko ezarrita dauden helburuak lortuko ditugula.

Azkenik, nabarmendu behar da, bilketa-kontratuaren gainean 2020an kaleratu den epaiaren analisiaren zain, aukera desberdinak baloratuko direla eta, egokia bada, kontratu berria esleitu dela.

#### Hondakinen tratamendua eta birziklapena

Araubideen ikuspuntutik, ekonomia zirkularraren legegintza-paketeak, Europan onartuak 2018an, oso asmo handiko helburuak ezarri ditu, une honetan onartu berriak daudenak –besteak beste 646/2020 Errege Dekretua, hondakinak ezabatzekoa zabortegean botatzearen bidez– edo Espainiako gobernuak onartzeko zorian daudenak –besteak beste, hondakinen lege berria edo ontzien Errege Dekretua–.

Legeria berrian eta Nafarroako Hondakinen Planean ezarritako helburuak taula honetan daude jasota:



	Hondakinak murriztea		Berreskuratzea		Ontziak berreskuratzea	Zabortegean ezabatzea. Gehieneko portzent.		Bio-hondakin birziklatua
	Hondakin legea	NHP	Hondakin legea	NHP	Ontzien ED	646/2020 ED	NHP	NHP
2020	%10	%10	%50	%50			%35	%50
2025	%13		%55		%65 (plast. %75) guztira	%40		
2027		%12		%75			%25	%70
2029					%90 plast.			
2030	%15		%60		%75 guztira	%20		
2035			%65			%10		
Imren egoera 2019	-5,70		39,10		53,84	67		32,50

Adierazitako lege-helburu horiek lortzeko, mankomunitate honek modu egonkorrean eta epe luzerako gainerakoen eta gai organikoen frakzioak tratatzeko instalazio bat eduki behar du, une honetan ez baitu halakorik.

Berrikuste-lan hau egiten ari garenean jada erabakita eta konprometita dago Iruñerriko Ingurumen Zentroaren kokapena Garraioaren Hiriaren 4. fasean, Noain-Elortzibarren, eta instalazio horren aurreproiektua idatzita dago. Izan ere, urte honetan bertan hasi dira ingurumen- eta hirigintza-arloko izapideak.

2024an hondakinak tratatzeko planta bat edukiko dugu, eta indarrean dagoen legerian planteatutako berreskuratze-helburuak lortzeko bidea emango digu horrek.

#### Balorizazioa eta birziklatu edo berreskuratu gabeko hondakinak isurtzea

Hondakinak kudeatzearen bosgarren maila birziklatu edo berreskuratu ezin izan den zatiaren azken ezabatzea da.

Horretarako, Europako, Estatuko eta eskualdeko araudian edo plangintzan ezarritako azken isurtzearen xede-portzentajeak hartu beharko dira kontuan, hondakin kudeaketarako helburuen taula-laburpenean jaso direnak. Erabat esan, agerikoa dirudi Europa mailan konpartitutako helburua dela zabortegeira eraman beharreko hondakin azken kantitateak minimora murriztu behar direla.

Arrazoi horrengatik berreskuratu gabeko hondakineterako azken norako onena aztertuko da, behin ebaluatu denean tratatutako eta berreskuratu gabeko hondakin izaera edo mota eta bolumena. Bio-egonkortuaren birziklapena lehenetsiko da hondakindegia eta zabortegeak lehengoratzean, eta azken hondakinerako norako egokiena aztertuko da, hondakin norakorako Europako hierarkiaren arabera.





Aurretik azaldu den guztitik ondoriozta daitekeen moduan, azpiegitura horiei ekiteko behar diren inbertsioen bolumena handia eta nabarmena izango da eta, beraz, berariazko analisisia egin beharko da horren guztiaren gainean.

<b>3. ARDATZ ESTRATEGIKOA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIH)</b>	
<b>KOD.</b>	<b>ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>
<b>1. ZIH</b>	Hondakinak murriztea eta jatorrian bereiztea maximizatzea.
<b>2. ZIH</b>	Hondakinen bilketa eraginkorra, helburuen arabera eta iraunkorra.
<b>3. ZIH</b>	Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurketaren bolumena minimizatzeko. Hondakinetarako azpiegiturak / instalazioak egitea.

### 5.3.3. Hiri Garraioa eta Taxia.

Hiri-garraioari eta taxiari dagokionez, 2015-2019 legegintzaldian erabakimenez egin zen aurrera proposatuta zeuden erronka estrategikoetako batzuetan, besteak beste, Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana (IHMIP) egitean, EHGaren berrikuntza teknologiko integrala egitean edo autobusetan eta taxiaren propulsiio-energia berriak sartzean. Ondorioz, helburu horiek berrikusi egin behar dira.

Beste alde batetik, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiak era sakonago eta iraunkorrago batean eragin die hiri-garraioari eta taxiari, IMk eta SCPSAk kudeatzen dituzten gainerako zerbitzuen aldean. Krisi honen bilakaera eta iraupena ezezagunak zaizkigu, baina baliteke egiturazko aldaketak ekartzea pertsonen lekualdatzeko dituzten moduetan, bakarkako joan-etorriak bultzatzean, eta zenbait fluxu murriztea, jarduera telematikoak sustatzean, adibidez, telelana.

**Mankomunitateak Iruñerriko mugikortasun jasangarri edo iraunkorreko eredu berri bat sustatu eta babesteari** dagokionez, Mankomunitateak Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana (IHMIP) egin du. Mugikortasunaren plangintza integrala egiteko tresna bat da, garraio publikotik harago doana, eta era koordinatuan idatzi dena metropoli-eremuko 18 udalerriekin eta Nafarroako Gobernuarekin, parte-hartze publikoko prozesu bizi baten ondoren. Eskualde-mugikortasunean banaketa modal berri baten erronka proposatzen du: %13/%42/%45 (autobusa/autoa/oinez-bizikletaz) egungo banaketa modaletik %20/%30/%50 banaketara igarota 10 urte barru, iraunkorragoa baita.



Hurrengo pausoek izan behar dute falta diren administrazioek IHMIPa onartzea eta hura gauzatzeko lehen faseari ekitea, programatutako fasea esaten zaionari. Horretarako, hitzarmen berria izenpetu behar da Nafarroako Gobernuarekin eta udalekin, eta fase programatu honetan aurreikusitako azterlanak egin, etorkizunean egin beharko liratekeen kostu handieneko inbertsioei buruz. IHMIParen gobernanta-eredua zehaztea, Mugikortasuneko Metropoli Bulegoa sortzearen bidez, erronka konplexuenetako bat da.

Etorkizuneko inbertsio horien barnean, garraio publikoko ardatz nagusien sare berria dago. Egituraz aldatuko luke Eskualdeko Hiri Garraioa, eta ahalmen handiko autobusak dituzten linea nagusi berrietan eta abiadura komertziala nabarmen hobetzea lortzeko bide-egituran aldaketak egitean oinarrituta dago. Tranbia baten ezaugarri guztiak edukiko lituzke, baina autobusen bidez gauzatu litzateke. IHMIPa egitean, sistema horren bideragarritasun-azterlan bat egin zen, eta fase programatu honetan asmoa da hura berrikusteko plangintza-tresna indartsu bat abian jartzea: mugikortasuneko eta garraioko eredu integratua, hiriko eta hiriarteko bideen sarea Nafarroako Gobernuarekin era adostuan hartuko duena kontuan. Tresna horrek ahalbidetuko du sare nagusi berriaren azken diseinua optimizatzea.

Beste alde batetik, hiriaren erdigunean garraio publikoa lehenesteko jada abian jarri diren neurrietatik abiatuta, garraio publikoa lehenesteko ekintzak bultzatu behar dira, jada beharrezkoak direnak autobusaren eta bide-sarearen arteko erlazioan, adibidez, autobusetarako erreiak inplementatzea, semaforoetan lehenestea eta antzeko beste batzuk. Azken urte hauetan abiadura komertzialak izan duen okertze progresiboak **are ezinbestekoagoak egiten ditu neurri hauek.**

**Kalitateko garraio publikoa eta teknologikoki aurreratua** sustatzeko hasi diren neurri askotarikoek aurrera jarraitu behar dute.

EHGan gauzatuak berrikuntza teknologiko integraletik abiatuta, ordaintzeko era berriak ezarri behar dira, teknologia berriei lotuak, sakelakoarekin kargatzeko jada badagoen aukerari jarraipena emango diotenak: garraio-txartelaren birkarga telematikoa, QR kodeen bidezko ordainketa, banku-txartelarekin ordaintzea, sakelako telefonoarekin ordaintzea eta bankuko kontuan ordaintzeko erak (ordainketa ondokoa eta aurreordainketa).

Beste alde batetik, beste modu batzuetarako baliozkoa den garraio-txartel bakarra sortzean Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzaren erroka da, eta horretarako teknologikoki ahalbidetzen duten pausoak ematen ari gara jada.

EHGan ezarritako plataforma teknologikoaren ondorioz, zerbitzuari buruzko datu fidagarrien eta integratuen bolumen handia sortzen da, erroka berri bat planteatzeko aukera ematen duena:



zerbitzuaren bilakaera “datuaren” gobernu-estrategia baterantz eta mugikortasunaren balio erantsi gisa aplikatzea.

Beste alde batetik, zerbitzua garajez hornitzea, aintzat harturik antzinasuna (50 urtetik gora) eta egun dauden mugak, **EHGaren elementu kritikoa** da.

Erregai moduan gasolioa ordeztzeko, autobusen flotan modelo energetikoa aldatzean ere aurrera egin behar da, ibilgailu hibridoak eta %100 elektrikoak direnak sartzearekin egindako aurrerapenen ondotik.

Testuinguru honetan, EHGaren kontzesio berria luzatuta dagoen egungo kontratua amaitzean zerbitzuan hasteko lizitatu beharko da. Saiatuko gara lizitazio-prozesu hori egun dagoen ziurtasuna baino handiagoa dagoen une batean egiten. Kontzesio horrek, beste alderdi batzuen artean, EHG/IHMIP sare berriari buruzko erabakietatik eratortzen direnak hartu beharko ditu kontuan, flotaren modelo energetiko berria, azken teknologiak ezartzea, eta bai garaje berriak eraikitzea ere.

Aurreko erronka horiei gehitu beharko zaie **EHGa finantza-esparru egonkor batez hornitzea COVID-19aren ondorengo aldian**. Eskaera murrizteak beharbada luzea eta iraupen ezezagunekoa izango den aldi batean, eta garraio publikoaren kontra egiten duten egiturazko aldaketek, gerta daitezkeen aldaketek, EHGa finantzatzeko dagoen sistema desorekatuko dute. Baliteke beharrezkoa izatea finantzaketa-sistema hori berrikustea, Estatuan Mugikortasun Iraunkorraren eta Garraioa Finantzatzekoaren Lege bat sortzearen esparruan.

Eta **taxiaren zerbitzuari** dagokionez, haren **modernizazioa, iraunkortasuna, erregulazioa eta optimizazioa** jarraitzeko erronka nabarmenak daude.

Iruñerriko eremu sakabanatuetan mugikortasun ordenatua lortzeko sistema garatzen jarraituko da, arrakasta nabarmenarekin abian jarritako esperientziei jarraipena emanez.

Beste alde batetik, mugikortasun murriztuko pertsonen kalitateko zerbitzua ematea sustatzen jarraituko da, taxiaren sektorearekin lankidetzan arituta.

Era berean taxiaren sektorearekin elkarlanean, ibilgailu iraunkorren sistemarentz azkar aldatzea sustatuko da.

Azkenik, era aktiboan jarraituko da dauden beste zerbitzu batzuen erregulazioa, besteak beste, ibilgailu gidaridunak (IG), taxiaren sektorearen funtzionamenduan izan dezaketen eragin bereziarengatik.



3. ARDATZ ESTRATEGIKOA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG).	
KOD.	ERRONKA ESTRATEGIKOAK
1. ZIHG	Iruñerrian mugikortasun iraunkorrerako eredu berri bat bultzatu eta babestea IMtik.
2. ZIHG	Kalitateko garraio publikoa eta aurreratua teknologikoki.
3. ZIHG	Finantza-esparru egonkorra ematea EHGari, COVID-19aren ondorengo aldirian.
4. ZIHG	Taxiaren sektorea. Modernizazioa, iraunkortasuna, erregulazioa eta optimizazioa.

#### 5.3.4. Klima-aldaketa.

Klima-aldaketaren kontrako borrokan, tokiko mailan, Mankomunitateak egiturako proiektuak eta jarduerak gauzatu dituzte bere errealitatea eraldatzeko eta, hartara, bere jarduketara eta eskumen-esparruan eragin positiboa duen erreferente soziala izatera igarotzeko.

IM-SCPSAk bere karbono-aztarnaren kalkulu egiaztatua dauka 2014az geroztik, eta Isurpenen Erregistro Nazionalen-MITECOren izena emanda dago. Hiru norainokoetarako **kalkulatzen dut - konpentsatzen dut - murrizten dut** zigilu hirukoitza lortu duen lehen toki-erakundea da. Horrenbestez, zehatz-mehatz dakigu, ingurumenari dagokionez, zein den gure egoera eta zein izango diren hobetu beharreko esparruak.

IM eta SCPSAren karbono-aztarna 47.211 tCO<sub>2</sub>baliokidekoa izan zen 2019an, eta 2014az geroztik %21,7 murriztu da (oinarri-urtea). Badakigu isurpen horien %92 bi alderdi hauetan pilatuta daudela: Gongorako HHTZko zabortegia (tratatu gabeko gai organikoak botatzeagatik), eta hiri-autobusen eta hondakinen bilketako kamioien flotetan kontsumitzen den gasolioa.

Iruñerriko Mankomunitateak **Estrategia Energetikoa eta Klima Aldaketarako** idatzi eta garatuko du, plan estrategiko honetan, erabakimenez aurrera egiteko eta, karbonoari dagokionez, 2030ean neutroa izatera heltzeko, hau da, gure jarduera osorik iraunkorra izatera iristeko, berotegi-efektuko gasen isurpenen ikuspegitik. Hartara, ekimen garrantzitsuenak hauen ingurukoak izango dira: jatorrian gai organikoak bereiztea nabarmen handitzeko proiektuak (txartel bidezko edukiontzia); hondakinen tratamendu integrala (Iruñerriko Ingurumen Zentroa); eta gasolioaren ordez beste energia alternatibo batzuk erabiltzea, biometanoa eta elektrizitatea, hondakinak biltzeko flotan, hiri-autobusetan eta SCPSAren ibilgailuetan. Gainera, SCPSAren lan egiten duten enpresa guztiek beren kontratuek eragindako isurpenak neutralizatu beharko dituzte. IMk eta SCPSAk pixkanaka konpentsatuko ditu



bere isurpenak MITECOk zertifikatutako CO<sub>2</sub> xurgapenak eskuratuta. Eta, berariaz, plan estrategiko honen indarraldian, zertifikatu ahal izango diren CO<sub>2</sub> xurgapeneko proiektuak garatuko dira basogintzako edo nekazaritzako jarduketetan, IMren esparruan.

Eta helburu horretarako ezinbesteko osagarri moduan, klima-aldaketaren kontrako borrokaren alderdia sustatuko da IMk eta SCPSAk garatutako berariazko politika eta jarduketan barnean, heziketa-programaren eta herritarrekiko harremanen barnean.

<b>3. ARDATZ ESTRATEGIKOA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. KLIMA-ALDAKETA (ZIHK).</b>	
<b>KOD.</b>	<b>ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>
<b>1. ZIHK</b>	Mankomunitate neutroa, karbonoari dagokionez, 2030erako.

#### **5.4. Laugarren ardatz estrategikoa. Bultzada teknologikoa herritarren alde.**

Aurrekaririk gabeko disrupzio teknologiko etengabeko testuinguru batean bizi gara, non informazioaren teknologiak garapen handia izaten ari diren, zeharkako eraginarekin, asmo orokorreko teknologiak baitira eta gizartea eta ekonomia eraldatzeko motor nagusia baitira. Lehiakortasuneko iturri handiena dira eta arlo guztietan dute eragina: administrazioetan, enpresetan eta herritarrengan.

Nahiz eta ikuspegi desberdinak egon daitezkeen, oinarrizko printzipio hauei buruzko adostasun nagusi bat dugu:

- Digitaliza daitezkeen guztia digitalizatuko da.
- Konekta daitezkeen guztia konektatuko da.
- Azter daitezkeen guztia aztertuko da.

Ikuspuntu horrek gizarte digital batera garamatza, hiperkonektatua eta adimenduna.

Azken garaian, teknologia gaitzaile batzuk sortu dira, edozein sektoreren eta edozein tamainatako enpresa/administrazioaren garapen teknologikoa ahalbidetzen dutenak. Teknologia horien konbinazioek aldaketa disruptiboak ekar ditzakete zerbitzuak ematean eta herritarrekiko harremanetan (banda zabala, hodeia, gauzen Interneta, datu masiboak, robotika, 3D inprimatzea, adimen artifiziala...).



Halaber, kudeatu egin beharko diren inhibitzaile batzuk daude: aldaketarako erresistentzia, enpresa-kultura, segurtasun digitala, talentua eta gaitzea, konponbide historikoak, arintasuna, erregulazioa...

Batzuen eta besteen kudeaketa onak desberdintzeko eta gero eta digitalagoa eta globalagoa den mundu batean zerbitzu hobeak emateko gaitasuna zehaztu eta erabakiko du. Hori guztia **teknologien erabileraren puntu estrategiko** batetik kokatu behar da, elementu eraldatzaile moduan, zerbitzuak emateko ikuspegian eta antolaketan, horretarako, gobernu-eredua eta beharrezkoa den egitura zehaztuta. Teknologiaek ahalbidetuko digute **datuak zuzendutako enpresa baterantz** aurrera egitea eta, hortaz, modu adimentsuagoan ematera zerbitzuak eta hartzera erabakiak, gauzen Internetan erabiltzearen bidez, "Hiri adimendunak" plataformak eta enpresaren jarduera globalaren inguruan sortutako informazio guztiaren analitika aurreratua (sentsoreak, prozesuak, herritarrak, *social media*, HAZ, inkestak...), gure zerbitzuekin lotutako beste aktore batzuen informazioarekin konbinatuta (beste udal-zerbitzu batzuk, udalak...).

Halaber, ahalbidetuko digu herritarrari balioa itzultzea, administrazioen arteko elkarreragingarritasunaren bidez, datua partekatzearen eta herritarrentzat informazioa modu gardenean eskuragarri egotearen bidez.

COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizi izandako egoerek agerian uzten dute gure prozesuak eta zerbitzuak digitalizatzeko beharra, lanpostuak eta pertsonak, barneko **enpresa-mugikortasun** benetakoa lortzeko eta gure zerbitzuak herritarrei **kontakturik gabeko bulego** baten bidez eskaintzeko.

Martxan dagoen beste proiektu garrantzitsu batek, erakundearen **egoitza salestarren eraikinean** kokatzeak, digitalizazio-aukerak eskaini beharko lituzke, papera murriztuta eta mugikortasuna eta lanpostuaren deskokatze fisikoa laguntzen duten teknologia berriak integratuta. Era berean, "smart" teknologia ezarri beharko lirateke, funtzionalitate aurreratuak emateko egoitza berriari, adibidez, aurpegiak ezagutzeko sistemak, aretoak erreserbatzea, ikus-entzunezkoak, sarbidea eta presentzia kontrolatzea integratzea....

Azkenik, ez dugu ahaztu behar eraldaketa digital eta enpresa-mugikortasun horrek guztiak berekin dakarrela **zibersegurtasunaren** arriskua, eta, beraz, alderdi horrek garrantzi funtsezkoa hartuko du eta lagun egin behar dio eraldaketa horri. Halaber, 4.0 industriaren teknologia garatzeak eta arlo industriala informazio-sistema korporatiboekin konektatzeko premia gero eta handiagoak nabarmentzen du zibersegurtasunari modu integral batean ekin behar zaiola.

#### 4. ARDATZ ESTRATEGIKOA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA HERRITARREN ALDE (BT).



KOD.	ERRONKA ESTRATEGIKOAK
1. BT	Estrategia teknologikoa.
2. BT	Enpresa-mugikortasuna.
3. BT	Kontakturik gabeko bulegoa.
4. BT	Datuak zuzendutako enpresa.
5. BT	Zibersegurtasuna.

## 5.5. Bosgarren ardatz estrategikoa. Pertsona antolatuak.

Plantilla eratzten duten pertsonak, langileak, edozein erakunderen funtsezko zatia dira. Talde horren zati handiena, 490 pertsona, SCPSA sozietate publikoan aritzen dira, beren hitzarmen kolektiboa duten langile lan-kontratudun gisa, eta 7 pertsonak Mankomunitateko plantilla organikoa osatzen dute.

Iraunkortasunaren, parte-hartzearen, gardentasunaren, arrazionalizazioaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, pertsonen garapenera bideratutako eta antolaketa egoki batean oinarritutako kudeaketa proaktibo baten bidez, ulertzen dugu zerbitzu publikoaren eredu erkidetua sendotu dezakegula, Iruñean eta Iruñerrian orain arte arrakastatsua izan dela erakutsi baitu.

IM-SCPSAk aurre egin behar dio langileen etorkizunari erakundeko benetako abiadura-palanka moduan, beren konpromisoa eta gogobetetasuna bultzatuta, haien lanak ahalik eta kalitate handiena ekar diezaien ematen ditugun zerbitzuei.

### 1. Langileak

Plantilla ongi dimentsionatua dugu eta, ematen ditugun zerbitzuekin lotutako ezagutza-arloak kontuan hartuta, oso askotarikoa da, osaerari eta profilei dagokienez. Batez besteko adina (49,56 urte, 2019ko abenduan) egiazki handia da, azken urte hauetan berritu egin bada ere, eta errotazioa oso baxua (batez besteko antzinasuna 17,7 urtekoa da). Behin-behinekotasuna eta absentismoa handitu egin da. Kokatuta gauden sektore publikoaren ezaugarriek eragina dute alderdi horietan, eta aipamen berezia egin behar da duela urte batzuetatik Estatuko aurrekontu orokorren legeetan jasotzen den aurrekontu-egonkortasunerako politikatik eratorritako langile-kontratatorako murrizketen gainean.

Muga horiek eduki arren, SCPSAren **erreferentziatzko antolaketa** aurreratu behar da, plan estrategikoa honetan jasotako etorkizuneko erronketatik eratorritako beharretara egokituta egitura,



tamaina eta profil profesionalak. Hondakinen, Uraren Ziklo Integralaren eta hiri-garraioaren zerbitzuetan deskribatutako proiektuek eta “4. ardatz estrategikoa. Bultzada Teknologikoa”n jasotzen diren erakundeko prozesuen eta lanpostuen digitalizazio gero eta handiagoak berekin dakartzate langileei eta haien antolaketari dagozkion erabakiak, iraganeko inertziak gaindituta eta plantilla etorkizuneko lanera ahalik eta gehiena egokitzea saiatuta. Berritze horrek, epe laburrean, zuzendaritzako eta buruztetako lanpostu-kopuru esanguratsu bati eragiten dio, gainera.

Beste alde batetik, beharrezkoa da **erakunde osasungarriaren** ikuspuntua garatzea, laneko arriskuen prebentzioan jada oso garatuta dauden ekimenak berritzaileagoak diren beste batzuekin integratuta, baina eragin gero eta handiagoarekin plantillaren ongizatean eta gogobetetasunean. Halakoak dira, esate baterako, “Wellness” (ongizatea) estandarrean jasotakoak –egoitza berriaren eraikinari aplikatua– eta enpresa osorako politika orokor gisa hedatuko direnak.

2017 eta 2020 artean, **garapen profesionalerako sistema** diseinatu da, erakundearen balioekin lotutako gaitasunetan oinarrituta, lanpostu bakoitzak gauzatu behar dituenetan. Arreta berezia jarri da zuzendaritzako eta buruztetako lanpostuek berezkoak dituzten lidergoko gaitasunetan. Plan Estrategikoaren berrikuste eta eguneratze honetan garapen profesionalerako estrategia horri jarraipena ematearen alde egiten da, hurrengo urteetan erakunde osoan progresiboki hedatzen joateko xedea izanda.

**Laneko harremanen esparruari** dagokionez, hurrengo urteetan SCPSAk aurre egin beharko dio Enpresa Batzordea berritzeari –2021erako aurreikusita dauden sindikatu-hauteskundeetan– eta bai aurreikustekoa den Hitzarmen Kolektiboaren negoziatioari ere, oraingoaren denbora-muga 2021a artekoa baita, nahiz eta luza daitekeen. Eskubideen eta betebeharren esparruak koherentea izan beharko du eta plan estrategiko honetan sustatzen diren pertsonen kudeaketarako estrategiak eta antolaketa-irizpideak garatzea erraztu beharko du, eta horretarako funtsezkoa izango da zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen artean harreman arina, konfiantzazkoa eta elkarlanekoa egotea.

## 2. Barne-antolaketa

Pertsonak kudeatzeko planteamendu honekin batera, antolaketari dagozkion erabaki egokiak hartu behar dira; hartara, antolaketa-egituraren gainean jarduteko **ikaskuntzan oinarritutako antolaketaren** ikuspegitik, sinplifikazio, zeharkakotasun eta malgutasun handiagoko irizpideekin. Kontua da progresiboki antolaketa-formatu arinagoak sartzen joatea, hain hierarkikoak ez direnak eta proiektuetan eta prozesuetan arreta jarritako lantaldeen bidez pertsonen parte-hartzean eta ekarpenean oinarritzen direnak. “4. ardatz estrategikoa. Bultzada Teknologikoa”n sartutako erronkek eta proiektuek –berekin dakarte lanpostuaren digitalizazio handia– inplikazio sakonak dituzte





antolaketa osoan eta haien aurretik aldaketa esanguratsuak egin beharko dira barnean eta kanpoan harremanak izateko eta lan egiteko moduetan.

Beste alde batetik, IM-SCPSAk bultzatu behar du **kudeaketarako sistema aurreratu** bat egotea, bai jardueren eta proiektuen bai eta emaitzen ikuspegi globala, integratua eta sistematikoa izatea erraztuko duena, jarduera-esparru guztietan informazioari eta adierazleei tratamendu egokia emanaz, hartara, balio izateko **kudeaketa, kontrol eta gardentasun** hobea eta handiagoa izateko.

Oinarri horien gainean, erakunde osoaren kudeaketaren kalitatea neurtzeko modua izan behar dugu, estandarizatuta dauden ereduak arabera (ISO, EFQM edo beste batzuk), eta arlo honetako eta beste batzuetako erakunde eta enpresekiko konparazio elementuak eduki behar ditugu.

### 3. Egoitza berria

Egoitza berriaren proiektuak era adierazgarrian egin du aurrera 2017-2020 aldian, eta egun eraikitze fasean dago. Aurreikusten den epea bi urtekoa da. Proiektuaren zati gisa, beharren azterlan bat egin zen eta antolaketako irizpideak hartu ziren kokapenak finkatzeko eta lanerako lekuak diseinatzeke, kontuan hartuta hainbat alderdi, adibidez, sailen tamaina, laneko fluxuetan eta proiektuetan dauden erlazioak, eta bai plantillaren ongizatearekin lotutako beste faktore batzuk ere.

Adierazitako denbora-muga hori izanda, funtsezkoa da egoitza berrira lekualdatzeko proiektuari heltzea, inplikazio adierazgarriak izango baititu hainbat gaitan, besteak beste, dokumentuen kudeaketan ahalik eta paper gutxiena erabiltzeko ikuspegi batean oinarrituta, teknologia berrien integrazio maximoan, antolaketako alderdietan eta ekipamendu/altzarietan, eraikina “zero isurpenekotzat” jotzea ahaztu gabe, hartara, egoitzak ere laguntzeko IMk eta SCPSAk karbono-aztarna murriztean ekarpena egitean duten eginkizunean, eta “Wellness” (ongizatea) estandarra kontuan hartzea, langileentzat osasungarriak diren laneko lekuak lortzera bideratua.

5. ARDATZ ESTRATEGIKOA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA).	
KOD.	ERRONKA ESTRATEGIKOAK
1. PA	Lanerako esparru bat edukitzea langileentzat. Hauek barne hartuko ditu: antolaketak eta teknologiak izango duten bilakaera aurreikusteko modukoa,



	belaunaldien arteko berritzea/plantilla berritzea, eta giza baliabideen eta antolaketaren politiken multzoa.
<b>2. PA</b>	Garapen profesionala laguntzea, barne hartuta lidergoa gauzatzea.
<b>3. PA</b>	Erakundearen beraren hitzarmen kolektiboan oinarritutako lan-harremanen esparru bat edukitzea. Enpresaren kulturarekin eta plantillaren bidez kudeaketa aurreratuarekin bat etorriko da.
<b>4. PA</b>	Erakunde malguagoa, arinagoa eta zeharkakoagoa lortzea, erronka estrategikoekin koherentea dena.
<b>5. PA</b>	IM eta SCPSAren egoitza berria.

## 5.6. Seigarren ardatz estrategikoa. Baliabide ekonomikoak.

2017-2030 aldirako Plan Estrategikoa berrikusteko ikuspuntu ekonomikotik, adierazi behar da, oso zehatza den faktore batek eragindako krisi-egoeran egotean, egungo egoera Plan Estrategikoak hartzen duen aldi osora proiektatzeko akatsa egin dezakegula.

Analisi eta aurreikusteko saiakera asko egin arren, oso zaila da jakitea zein izango den amaierako egoera, zalantzazko faktoreak egun asko baitira.

Hori dela-eta eguneratzea egin behar da egungo egoera aintzat hartuta, baina onartu gabe etorkizuneko egoera gaur ikusi eta irakurtzen duguna izango dela, baizik eta, plan estrategiko bat izatean, pandemia aurretik ikusten ari ginen egiturazko joeren ebaluazioa jarraitu behar dugula. Hartara, erregistratu ahal diren epe luzerako inpaktuak ebaluatu behar ditugu, ez bakarrik COVID-19aren pandemiarengatik baizik eta negozioren beraren bilakaerarengatik.

### Kontsiderazio orokorrak:

- Azpiegituretan inbertsioak egitea bultzatu behar da, bai enplegua sortzearen ikuspegitik, eta bai hirietan aktiboz hornitzean aurrera egitearen beraren ikuspegitik.
- Europako erakundeek finantzaketa-lerroak jarri behar dituzte herrialdeen esku, maileguren edo dirulaguntzen forman. SCPSAk NEXT GENERATION programen esparruan eskuratu ahal izango ditu.
- Dirulaguntzen bilaketa SCPSAko lehenasuneko lan-arlo bezala konfiguratu behar da. Kontuan izan behar da, SCPSAren finantzaketa-beharrak kontuan izanda, interesekoak izango direla, dirulaguntzak ez ezik, baita banku-sistematik kanpoko maileguak ere edo, sistematik etorriak izan arren, erakunde ofizialek bermatuak izan daitezkeenak.



- SCPSAn egin beharreko inbertsioen zenbateko handiak eta kostuen emendatzeak tarifetan eragina izateko zailtasunak marjina presionatuko du eta, horrenbestez, altxortegia. Finantzen sailak inbertsio-erabaki guztietan presente egon beharko du. Gerta liteke zorpetze-egoera batera iristea.
- Kostuen kontrola, altxortegiko kontrola bezala, jarduera nagusia izatera igaroko da, eta ez zaio bakarrik ekonomia-arloari bakarrik egokituko baizik eta enpresa osoari. Erabakimenez bultzatu beharko da zuzendaritza-taldetik. Hau da, kontabilitate analitikoko sistema bat ezarri behar da, SCPSAren kostuak eta diru-sarrerak zein modutan banatzen diren aztertzeko.

<b>6. ARDATZ ESTRATEGIKOA. BALIABIDE EKONOMIKOAK (BE).</b>	
<b>KOD.</b>	<b>ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>
<b>1. BE</b>	IM eta SCPSAren ekonomia- eta finantza-plana. Oreka eta independentzia ekonomikoa islatuko du, tarifen esparru/finantzaketa-esparru egonkor baten bidez, eta bai kostuen neurketak ere, haiek aztertzeo unitateen, sailen eta zerbitzuen bidez.
<b>2. BE</b>	Kontratatzeko publikorako sistema sendotzea epe luzerako ikuspegiarekin, erosketa publiko berritzailearen eta erosketa publiko berdearen ikuspuntuak barne hartuta.

## **6. Plan Estrategikoaren hedatzea, jarraipena eta eguneratzeak.**

Bere garaian, betetzeko aldi zabal baterako zehaztu zen plan estrategiko hau: 2017. eta 2030. urteen artean. Izan ere, horren arrazoia izan zen Mankomunitateak aurretik zituen –eta edukitzen jarraitzen duen– erronken zati adierazgarri batek denbora-epe hori behar izatea gauzatzeko, eta, gainera, ulertzen genuen Mankomunitateak handik 15 urtera gizarte desberdin bati eman beharko ziola erantzuna eta, horrenbestez, bide horri ekin behar geniola jada.

Plan Estrategikoaren berrikuste eta eguneratze honek ideia horiek berresten ditu eta aholkatzen du 2030erako denbora-muga horri eustea. Ikus daitekeen moduan, erronka batzuek era esanguratsuan egin dute aurrera, eta beste batzuk, informazio berrien, analisien eta aurreikusitako egoeren arabera, aldatu eta egokitu egingo dira, edo orientazio berri moduan sortuko dira. Horrek guztiak baliozkotu egiten du Plan Estrategikoan bertan jada aurreikusitako berrikuste-mekanismoa eta -sistematika.



Aintzat hartu behar da programetako batzuen finantzaketari eragin diezaioketela Europako NEXT GENERATION esparruan sartutako proiektu estrategikoen, eta horrek aldaketa esanguratsuak ekar ditzake haiek gauzatzeko ordenan.

#### Urteko hedatzea. Urteko Kudeaketa Planak (UKP).

IM-SCPSAren Plan Estrategikoa ekitaldi bakoitzean hedatzen jarraitu beharko da, egokiak diren Urteko Kudeaketa Planen bidez (UKP). Hartara, Plan Estrategikoa indarrean egongo den urte guztietako bakoitzerako zehazten diren UKP guztiek koherenteak izan beharko dute Planarekiko eta, are garrantzitsuagoa dena, ardatz eta erronka estrategikoetako bakoitzerako eta dagozkien proiektuetarako Plan Estrategikoan aurreikusi diren helburuak lortzen joateko bidea emango duten urteroko tresnak izan beharko dute.

#### Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta jarraipena.

Plangintza egiteko tresna oro bezala, IM-SCPSAren plan estrategiko honi jarraipena eta ebaluazioa egiten zaio urtero, hurrengo urtearen lehen bi hilabeteetan. Hain zuzen, zuzendaritzako batzordeak eta gobernu-organismoek egiten dute. Jarraipen eta ebaluazio horretatik ondorioztatuko da Planaren garapenari eta indartu edo zuzendu behar diren alderdiei buruzko analisia. Beharrezko jotzen bada, bultzatzaileke Plan Estrategikoa eguneratzea, hurrengo atalean aurreikusita dagoenarekin bat ez datorrena.

#### Plan Estrategikoa eguneratzea.

Plan Estrategikoaren indarraldi luze horretan orain planteatutako ekimen eta proiektu asko amaitzen joango dira, baina, aldi berean, herritarrei arreta hobea emateko aukera berriak sortzen joango dira, batez ere, etengabe bilakatzen ari den gizarte honetan.

Hori dela-eta, plan estrategiko hau dokumentu bizia izatea aurreikusi behar da, **etengabeko hobekuntzarako** esparrua, gutxienez, lau urtean behin eta bai egoerak hala egitea aholkatzen duenean ere berrikusi eta eguneratu beharko dena. Hori guztia egingo da Mankomunitatea etengabe bilakatzen joan dadin, zerbitzua ematen dion gizartearen eskutik.

## **7. Plan Estrategikoaren zabalkundea: gardentasuna.**

Bai 2017-203 aldirako Plan Estrategikoaren berrikuste eta eguneratze hau, bai eta Urteko Kudeaketa Planak eta haien jarraipenak, ebaluazioak eta eguneratzeak dokumentu publikoak izango dira, herritarrek eta beste interes-talde batzuek libreki eskuratzeko modukoak, IMren webgunearen bidez.



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

## **8. Ondorioa.**

2017-2030 aldirako Plan Estrategikoa 2020ko azaroan berrikusteak balio izan du lau urte hauetan garatutako proiektuen aurrerakuntzak egiaztatzeko eta erronka eta ekimen batzuen ikuspuntua eguneratzeko, heltzearen, ingurunearen bilakaeraren eta premia berrien emaitza moduan, eta bai erabilgarri dauden tresna eta teknologia berrien emaitza moduan. Eta hori guztia xedea jarrita IM eta SCPSAren misioak adierazten duenean: etengabe laguntzea Iruñerriko biztanleen bizi-kalitatea hobetzean.



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

## I. ERANSKINA. ERRONKA ESTRATEGIKOEN ZERRENDA.



ERRONKA ESTRATEGIKOAK			
ERAKUNDE- ESPARRUA	1. EE	Ezkaabako Eskualde Parkearen kudeaketa	
	2. EE	IMren instalazio kritikoen ingurunean arriskuen prebentzio-paisaien diagnostikoa eta proiektuak egitea	
	3. EE	Eskualdean ingurumen-inguruneen erabilera publikorako planak egitea	
HERRITARREKIKO HARREMANAK	1. HH	Gardentasunean sakontzea, aldaketarako faktore gisa, eta herritarrekiko harremanak hobetzean	
	2. HH	Herritarren inplikazioa sustatzea, parte hartzeko prozesu eraginkorrak antolatuta	
	3. HH	Herritarrekin bi norabideko komunikazioa sustatzea, IKTen bidez	
	4. HH	Teknologia berriek eragindako eredu-aldaketara egokitzea herritarrekiko arreta	
	5. HH	Kanpora zabaltzean eta interes-taldekiko harremanetan sakontzea	
	6. HH	Erakundearen gizarte- eta ingurumen-erantzukizunaren irudia bultzatzea	
ZERBITZU IRAUNKORRAK	URAREN ZIKLO INTEGRALA ETA IBAI- PARKEA	1. ZIHU	Zerbitzua bermatzea
		2. ZIHU	Kontsumoko uraren kalitatea bermatzea
		3. ZIHU	Hornidura-zerbitzua optimizatzea
		4. ZIHU	Hondakin- eta euri-uren saneamendua bermatzea
		5. ZIHU	Hondakin-uren arazketa bermatzea
		6. ZIHU	Ibai Parkea handitzea eta eskualde-mugikortasun iraunkorreko ardatz gisa integratzea
	HONDAKINAK	1. ZIHH	Hondakinak murriztea eta jatorrian bereiztea maximizatzea
		2. ZIHH	Hondakinen bilketa eraginkorra, helburuen arabera eta iraunkorra
		3. ZIHH	Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurketaren bolumena minimizatzen. Hondakineterako azpiegiturak / instalazioak egitea
	GARRAIOA	1. ZIHG	Iruñerrian mugikortasun iraunkorrerako eredu berri bat bultzatu eta babestea IMtik
		2. ZIHG	Kalitateko garraio publikoa eta aurreratua teknologikoki
		3. ZIHG	Finantza-esparru egonkorra ematea EHGari, COVID-19aren ondorengo aldirian
		4. ZIHG	Taxiaren sektorea. Modernizazioa, iraunkortasuna, erregulazioa eta optimizazioa
	KLIMA- ALDAKETA	1. ZIHK	Mankomunitate neutroa, karbonoari dagokionez, 2030erako
	BULTZADA TEKNOLOGIKOA	1. BT	Estrategia teknologikoa
2. BT		Enpresa-mugikortasuna	
3. BT		Kontakturik gabeko bulegoa	
4. BT		Datuak zuzendutako enpresa	
5. BT		Zibersegurtasuna	
PERTSONA ANTOLATUAK	1. PA	Lanerako esparru bat edukitzea langileentzat. Hauek barne hartuko ditu: antolaketak eta teknologiak izango duten bilakaera aurreikusteko modukoa, belaunaldien arteko berritzea/plantilla berritzea, eta giza baliabideen eta antolaketaren politiken multzoa	
	2. PA	Garapen profesionala laguntzea, barne hartuta lidergoa gauzatzea	
	3. PA	Erakundearen beraren hitzarmen kolektiboan oinarritutako lan-harremanen esparru bat edukitzea	
	4. PA	Erakunde malguagoa, arinagoa eta zeharkakoagoa lortzea	
	5. PA	IM eta SCPSAren egoitza berria	
BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA KONTRATAZIOA	1. BE	IM eta SCPSAren ekonomia- eta finantza-plana	
	2. BE	Kontratatzeko publikorako sistema sendotzea epe luzerako ikuspegiarekin, erosketa publiko berritzailearen eta erosketa publiko berdearen ikuspuntuak barne hartuta	



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

## **II. ERANSKINA. PROIEKTUEN ETA HELBURUEN HEDATZEA.**





## 1. ARDATZ ESTRATEGIKOA – ERAKUNDE-ESPARRUA (EE)

KOD.	ERRONKA	DESKRIBAPENA	PROIEKTUAK	HELBURUAK
1. EE	EZKABAKO ESKUALDE-PARKEAREN KUDEAKETA.	IMren Batzar Nagusian, parkea kudeatzeko eskumenak bere gain hartzea eta UPSaren ildo estrategikoen arabera garatzea.	<b>ESKUMENAK BERE GAIN HARTZEA ETA UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALAREN ILDO ESTRATEGIKOAK GARATZEA.</b>	2020an zehar, UPSa onartuko da eta 2021ean IM proposatuko dute esparru horretako toki-erakundeek Ezkabako Eskualde Parkea kudeatzeko organo gisa.  Data horretatik aurrera, zenbait proiektu jakinen finantzaketaren arabera, UPSan garatutako ildo estrategikoak gauzatuko dira eta Ezkabako Eskualde Parkearen kudeaketa koordinatua egingo da.
2. EE	IM-REN INSTALAZIO KRITIKOEN INGURUNEAN ARRISKUEN PREBENTZIO-PAISAIEN DIAGNOSTIKOA ETA PROIEKTUAK EGITEA.	Diagnostikoa eta ekintza-plana egitea gure ekoizpen-zentroen ingurunean landa-inguruneetan (edateko uren araztegiak, araztegia eta hondakinen zentroa).	<b>IM-REN ZENTROETAN INGURUMEN-ARRISKUAK MINIMIZATZEKO PLANAK GAUZATZEA.</b>	Azterlanak egitea eta neurriak ezartzea IMren ekoizpen-zentroetarako: EUTEak, Arazuriko HUA eta Gongorako HHTZ.
3. EE	ESKUALDEAN INGURUMEN-INGURUNEEN ERABILERA PUBLIKORAKO PLANAK EGITEA.	Eskualdean ingurumen-inguruneetarako erabilera publikoko planak egitea.	<b>JARDUTEKO LEKUAK AZTERTU ETA HAUTATZEA, TOKI-ERAKUNDEEKIN KOORDINATUTA.</b>	Inguruneak hautatzea.  Ekintzen ebaluazioa. Karbono-isurbideak.  Tokiko planak gauzatzea.



## 2. ARDATZ ESTRATEGIKOA – HERRITARREKIKO ETA INGURUNEAREKIKO HARREMANAK (HH)

KOD.	ERRONKA	DESKRIBAPENA	PROIEKTUAK	HELBURUAK
1. HH	<b>GARDENTASUNEAN SAKONTZEA, ALDAKETARAKO FAKTORE GISA, ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK HOBETZEAN.</b>	Beste administrazio batzuekin alderatzeko azterlana. Edukiak definitzea. Datua sartzea. Gardentasuneko webgunea berriro diseinatzea. Haren berri izatea eta erabiltzea dinamizatzea.	<b>GARDENTASUNEKO WEBGUNEA.</b>	2021ean gardentasuneko webgunea amaitzea, aitortuta dauden estandarrak beteta (ITA, DAM). Dibulgazioa eta dinamizazioa hastea.
2. HH	<b>HERRITARREN INPLIKAZIOA SUSTATZEA, PARTE HARTZEKO PROZESU ERAGINKORRAK ANTOLATUTA.</b>	Prozesuak diziplina anitzeko talde batean zentralizatzea. Prozesu arinak eta zorrotzak ezartzeko bidea ematen duten metodologia eta parte-hartze tresnak garatzea.	<b>PARTE HARTZEKO ESTANDARRA GARATZEA.</b>	Parte hartzeko metodologia definitzea. Prozesuen informazio zentralizatuko sistema sortzea. Parte hartzeko tresna digitalak garatzea.
3. HH	<b>HERRITARREKIN BI NORABIDEKO KOMUNIKAZIOA SUSTATZEA, IKT-EN BIDEZ.</b>	Bi norabideko erlazioa planifikatu, antolatu eta dinamizatzea, sare sozialen eta beste baliabide digital batzuen bidez.	<b>SARE SOZIALAK GARATU ETA KUDEATZEKO PLANA.</b>	Sare sozialen behatoki bat sortzea, zeharkakoa, ukitutako sailekin. Planteatzen diren alderdiei arreta emateko eta erregistratzeko prozesuak ezartzea (HAZ, TCC, Komunikazioa). Adierazleak ezartzea. Pertzepzio-kontsultak sartzea inkestetan.
4. HH	<b>TEKNOLOGIA BERRIEK ERAGINDAKO EREDU-ALDAKETARA EGOKITZEA HERRITARREKIKO ARRETA.</b>	Teknologia berriak baliatzea, bezeroei errazteko erakundearekiko komunikazioa eta kudeaketak egitea.	<b>HERRITARREN ARRERATAKO BIDE DESBERDINAK EGOKITZEA.</b>	Bezeroen profilak eta beren beharrak aztertzea, kanal edo bide egokienak sustatzeko.
			<b>ZERBITZUEI ETA IZAPIDEEI BURUZKO INFORMAZIO</b>	Edukiak eta haiek bideratzeko moduak berrikusteko



## 2. ARDATZ ESTRATEGIKOA – HERRITARREKIKO ETA INGURUNEAREKIKO HARREMANAK (HH)

KOD.	ERRONKA	DESKRIBAPENA	PROIEKTUAK	HELBURUAK
			<b>ESKURAGARRIA, ERABILGARRIA ETA EGUNERATUA ZIURTATZEA.</b>	metodologia bat ezartzea.
5. HH	<b>KANPORA ZABALTZEAN ETA INTERES-TALDEEKIKO HARREMANETAN SAKONTZEA.</b>	Zeharkako sistema bat ezartzea, interes-taldeen foroak edo eztabaida-lekuak antolatu eta haietan parte hartzea sustatzeko.	<b>INTERES-TALDEEKIN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO METODOLOGIA.</b>	Elkargunerako foroak ezagutu, sustatu eta antolatzeko sistema zentralizatu bat sortzea, formatu egokia izango duena.  Emaizak partekatzeko sistema bat ezartzea.
6. HH	<b>ERAKUNDEAREN GIZARTE- ETA INGURUMEN-ERANTZUKIZUNAREN IRUDIA BULTZATZEA.</b>	Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren testuinguruan gauzatzen diren ekintzak zentralizatu, sustatu, erregistratu eta zabaltzeko bideak eta tresnak sortzea.	<b>ERAKUNDEAREN GIZARTE- ERANTZUKIZUN KORPORATIBOKO EKINTZAK ZENTRALIZATU ETA ZABALTZEA</b>	Erakundearen gauzatzen diren Gizarte Erantzukizun Korporatiboko ekintza guztien informazio zentralizatua edukitzeko tresnak sortzea.  Herritarren pertzepzioa biltzeko galderak sartzea inkestetan.  Emaizten zabalkundea egiteko bideak zehaztea.



### 3. ARDATZ ESTRATEGIKOA – ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA ETA IBAI-PARKEA (ZIHU)

KOD.	ERRONKA	DESKRIBAPENA	PROIEKTUAK	HELBURUAK
1. ZIHU	ZERBITZUA BERMATZEA.	Azpiegituren plana.	<b>UZI-KO SAREAK BERRITU ETA EGUNERATZEKO PLANA.</b>	Sareen berritze-tasa bat lortzea, haien balioari eguneratuta eusteko.  2021etik aurrera, plan eguneratu bat edukitzea, aktiboen mantentze egokirako, eta finantzaketa-beharrak zehaztea.
			<b>UZI-KO INSTALAZIOAK BERRITU ETA EGUNERATZEKO PLANA.</b>	Aktiboen balioari eguneratuta eustea.  Lau urterako planak ezartzea instalazioak berritzeko, Uraren Osasun Planaren eta Saneamendu eta Arazketa Planen arabera.
			<b>IRUÑERRIKO BESTE UDALERRI BATZUK SARTZEA.</b>	Integratzea erraztea, beharrezkoak diren proiektu eta obretarako baliabide teknikoak eta giza baliabideak emanda.  2020an, Goñi herria integratzeko proiektuan lan egiten ari gara. Gongora, Usi eta Esteribarko herriak sartzeko daude.
			<b>AZPIEGITURA BERRIEN PROGRAMA, HIRI-GARAPEN BERRIENGATIK.</b>	Beharrezkoa den sareen modeloa eguneratzea, besteak beste, Iruñerriko hiri-garapenerako.
